

AITA SANTUA COLORADON

Agostuko albisterik ederrenetarikoa, Coloradon gertatu da. Bertako Denver urian, milloi bat inguru gazte bildu dira Aita Santuagaz. Orrenbeste gazte batuteko kapaz dan gizonak, badau zerbait. Ez bakarrik aurten, beste ainbat bider be bai. Enaz iñoiz aztuko 1989. urtean Konpostelako Santiagon ikusitakoaz. Billera zoragarria axe!

Bada, zorionez, munduan zear gazte jatorrik! Baita geure errietan be. Ez, ez dira ez, gure gazte danen eredu or eta an dabizan drogazaleak. Ezta beste milla loikeri eta zaborkerietan lorrinduta dagozanek be. Gitxiago oraindiño, Donostiako Salbean erriak aukeratutako agintariei arrika edo erriak onartutako ertzainei ostikoka Bilboko kaleetan edo erriaren onerako lanpostuen sortzaillei askatasuna ukatzen dautseenak. Onelako jente modua gitxiengoa baiño ezta gure errian. Naizta euron barrabaskeriak, munduaren aurrean, euskaldunok lurra jota itzi.

Bizia ugari

Munduko gazteen VIII. jardunaldia izan dogu Coloradon ospatu dana. Jardunaldi orren eslogana, Aita Santuak berak aukeratu izan dau. Ona emen: «Ni, barriz, bizia izan dagien eta ugari izan dagien etorri naz». Jesukristoren berbak ditugu. Juan Ebanjelariak dakaz amargarren kapituluan.

Ezta joan Aita Santua gazte gauza desiregarriak esatera. Ez dau nai izan ezer ezkutatzetik. Kementsu, argi eta garbi, ausardiz egin dautse berba. Poloniar Aita Santua ez da ibilten brometan. Ta gazte jatorrak badakie ori. Ta orixe da gazte zintzoak geien eskertzen dautsoena Juan Pablo II.ari.

Biziaren zibilizazioaren premiña gorrian daukagu gizartea. Biziaren kultura zaindu eta indartu bearrean gagoz. Zibilizazio barri orretan ez daukee lekurik gerrak, goseteak, injustiziak, borrokak, ilketak, biolazioak, bortxaketak, abortoak, eutanasiak eta beste ainbat esan eziñezko piztikeriak.

Gaurko munduaren kezkek eta erronkak ardura andiz leporatzeko diñotse. Gazte jatorren bizkarrean ikusten dau Aita Santuak gizarte barriaren etorkizuna. Bein eta barriro gogoratzen dautse pertsonaren paregabeko duintasuna eta balioak. Mezu onetan, «pasotak» eta orrelako gazteak ez daukee lekurik. Bai oster, gazte zuzenak eta ondrauak.

Fedea gizonaren serbitzuan

Munduko gazteen jardunaldia Ipar Amerikan izan dogu. Amerikarrak oso erlejiño-zaletuak ditugu. 300-dik gora erlejiño-klase ofizialki onartuak ei dagoz bertan. Ta sektak, oster, kontau ezinala.

Orrelako lurralde baten, ez dau bildurrik izan Juan Pablo II.ak egi biribil au gogoratzeko: «Jaungoikua goratzen dabenak, gizona be goratu egin bear dabela». Eta beste au be ez da txantxetakoa: «Errien eta arrazen eta erlejiñoen izenean egiten doguzan mugak bera botateko». Olako berbak, Bill Clintonen berberaren aurrean, esan ebazan Aita Santuak.

Tamalez, Españiako eta Euskalerriko komunikabideetan jardunaldi onek oiartzun gitxi izan dau. Michael Jacksonek edo beste olako batek orrenbeste gazte bildu balitu, eziran ixilduko oiukatzen.

Ta iñok ezer aipatu badau, Aita Santuaren aurka izandako istilitxoren bat aipatzeko izan da. Atzelarien edo lesbianen edo

«pastore protestante» baten manifestapentxoren bat aipatzeko orduan, berealaxe mogitu dira gure komunikabideak.

Erlejiño notizietan bertan be, esaterako, abade ezkonduak, Madriden, ospatu izan daben kongresuak, toki geiago izan dau Coloradon izandako Munduko gazteen VIII. jardunaldiak baiño. Ta milloi bat gazte Aita Santuaren inguruan batutea, mordoa da ba, ixilik eukiteko! Gure komunikabideen azpian, batez be euskerazkoen azpian, zeozer ustelduta ez dagoanik...

A. Olea